**BAZTANGO UDALA**
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN

# 2020ko MARTXOAren 13ko EZOHIKO OSOKO BILKURA

# *SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA DE 13 DE MARZO DE 2020*

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2020ko martxoaren 13an, 08:00etan, Baztango Udala Osoko bilkuran bildu da, ezohiko bileran, Joseba Otondo Bikondoa alkate-udalburu jauna buru dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Juan Cruz Iriarte Bañez, Maria Josefa Garmendia Urtizberea, Xabier Maia Etxeberria, Oianko Garde Jaunsaras eta Xabier Torres Letona EH-BILDU taldekoak: Maria Isabel Olave Ballarena, Anastasio Nagore Garralda eta Maria Carmen Iribarren Iribarren, UPN taldekoak; Florentino Goñi Tellechea eta Iñigo Iturralde Eliceche BAZTANGO EZKERRA taldekoak; Joseba Moreno Videgain eta Ruben Ziganda Sanz GEROA BAI taldekoak.

Idazkari lanetan, Iulen Urbiola Loyarte Jauna aritu da.

Alkatearen aginduz, bilkura hasi da.

*En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 08:00 horas del dia 13 de marzo de 2020, se reúne, en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, presidido por el alcalde-presidente Joseba Otondo Bikondoa y con la asistencia de los siguientes concejales: Juan Cruz Iriarte Bañez, María Josefa Garmendia Urtizberea, Xabier Maia Etxeberria y Oianko Garde Jaunsaras, Xabier Torres Letona por el grupo EH-BILDU; María Isabel Olave Ballarena, Anastasio Nagore Garralda y María Carmen Iribarren Iribarren por el grupo UPN; Florentino Goñi Tellechea e Iñigo Iturralde Eliceche por el grupo BAZTANGO EZKERRA; Joseba Moreno Videgain y Rubén Ziganda Sanz por el grupo GEROA BAI.*

*Actúa como secretario D. Iulen Urbiola Loyarte.*

*El alcalde da comienzo a la sesión.*

## 1.- 2020 URTERAKO OHIKO AURREKONTU PROIEKTUA AZTERTU ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTU.

Hasiera eman zaio Udalbatza honi eta haren menpekoak diren Baztango Udal Ikastolaren eta Francisco Joaquin Iriarte Zahar-etxearen Aurrekontu Arruntaren eta hari dagozkion Betearazpen Oinarrien azterketari, halaber Giltxaurdi enpresa publikoaren sarreren eta gastuen aurreikuspenak 2020ko ekitaldirako.

Aurrekariak azaldurik, arrazoiak eta ondorioak aurkezturik, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua, eman ondoren eta honela laburbiltzen dena:

**Isabel Olave, Navarra Suma**: Esan du administrazio honen betebeharrak doitzeak ez duela justifikatzen aurkeztu diren ganoragabeko aurrekontuak. Kontrako botoa emango dutela gaineratu du, eta zuzenketak egiteko epean

## *1.- EXAMEN Y EN SU CASO APROBACIÓN, DEL PROYECTO DE PRESUPUESTO ORDINARIO PARA EL EJERCICIO DE 2020.*

*Se ha procedido al examen del Presupuesto Ordinario y correspondientes Bases de Ejecución de esta Corporación, y de los entes dependientes del mismo, Ikastola Municipal de Baztan y Residencia de Ancianos y Jubilados Francisco Joaquín de Iriarte, así como la previsión de gastos e ingresos de la empresa pública Giltxaurdi para el ejercicio 2020.*

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias del mismo, exponiendo los Corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión y que se resumen en:*

***Isabel Olave, Navarra Suma:*** *Dice que ajustar las obligaciones de esta administración no justifica la calamidad de presupuestos que se han presentado. Añade que votarán en contra y en el periodo de enmiendas presentarán las*

dagozkion zuzenketak aurkeztuko dituztela. Gaineratu du aurrekontuari, gainera, generoaren araberako eraginari buruzko txostena falta zaiola, eta ondokoetan sartzea iradoki du.

Alkateak bozkatzeko deia egin du eta 2/1995 Foru Legearen 202. artikuluaren arabera, Udalbatzak **hurrengo akordioa onartu du,** aldeko 10 boto eta kontrako 3 boto izan direla:

1.- Baztango Udalaren eta bere menpeko diren Baztango Udal Ikastolaren eta Francisco Joaquin Iriarte Zahar-etxearen Aurrekontu Arruntari eta dagozkion Egintzarako Oinarriei, bai eta Giltxaurdi enpresa publikoaren sarreren eta gastuen aurreikuspenei ere **hasierako onespena ematea** 2020 ekitaldirako.
Horien inguruko zehaztapenak horretarako ireki den espedientean daude, honako saio honi dagokion espedientearekin batera artxibaturik.

2.- Udalbatzak Aurrekontuari hasierako onespena emanda, hamabost egun baliodunez izanen da **jendaurrean** Idazkaritzan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki taulan argitaratu eta gero, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

3.- Erreklamaziorik izanez gero, Osoko Bilkurak horien eta aurrekontuaren behin betiko onespenaren gaineko akordio zehatza hartuko luke. Erreklamaziorik ez balego, aurrekontuak behin betiko onartutzat emanen dira, jendaurreko epea igaro ondoren.

**Anastasio Nagore bilkuratik ateratzen da.**

**2.- 2020 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA AZTERTU ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTU.**

Aurrekariak azaldurik, arrazoiak eta ondorioak aurkezturik, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua, eman ondoren eta honela laburbiltzen dena:

**Isabel Olave, Navarra Suma**: Nabarmendu du 50.000 euro inguru ordaindu behar izan direla hondakinen teknikariaren postuan ohartarazten zuten desoreka batengatik. Plantillan hondakinen teknikariaren bi plaza ikusten ditu, bata B mailakoa eta bestea c mailakoa. 2020an ordaintzen jarraitu beharko diren atzerapenak nola kuantifikatzen diren galdetu du.

*rectificaciones oportunas. Añade que, además, al presupuesto le falta el informe de impacto de género y sugiere que se incluya en los sucesivos.*

*El alcalde ha llamado a votar y según lo dispuesto en el artículo 202 de la Ley Foral 2/1995, el Pleno **ha adoptado el siguiente acuerdo** con 10 votos a favor y 3 votos en contra:*

*1.- **Aprobar inicialmente** el Presupuesto Ordinario y correspondientes Bases de Ejecución de este Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad de Baztan y de los entes dependientes del mimo, Ikastola Municipal de Baztan y Residencia de Ancianos y Jubilados Francisco Joaquín de Iriarte, así como la previsión de gastos e ingresos de la empresa pública Giltxaurdi para el ejercicio 2020. El detalle de los mismos obra en el correspondiente expediente incoado al efecto, que queda archivado junto al de la presente sesión.*

*2.- Aprobado inicialmente el presupuesto por el Pleno, se **expondrá** en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.*

*3.- Si se formularan reclamaciones, el Pleno adoptará acuerdo expreso relativo a la resolución de aquéllas y a la aprobación definitiva del presupuesto. Si no se hubiesen formulado reclamaciones, el presupuesto se entenderá aprobado definitivamente, una vez transcurrido el período de exposición pública.*

***Anastasio Nagore sale de la reunión.***

***2.- EXAMEN Y EN SU CASO APROBACIÓN, DE LA PLANTILLA ORGÁNICA PARA EL EJERCICIO 2020.***

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias del mismo, exponiendo los Corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión y que se resumen en:*

***Isabel Olave, Navarra Suma:** Insiste en que se han tenido que pagar alrededor de 50.000 euros por un desajuste del que venían advirtiendo en el puesto de la técnica de residuos. Está viendo en la plantilla dos plazas de técnico/a de residuos, una de nivel B y otra C. Pregunta cómo se cuantifican los retrasos que se van a tener que seguir pagando en el año 2020.*

BAZTANGO UDALA Universidad de Baztan

2020-2021 ikasturteko musika eskolako langileen atala zergatik aldatu duten ere galdetu du. Kontratu mota aldatu da, langileek sinatu gabe.
Halaber, esan du jakin nahi duena dela 2020ko mailaren aldearen zenbateko zehatza. Musika eskolaren txosten juridikoari buruz, galdetu du zergatik ez zaion aurrekontuari erantsi, eta gaineratu du uste duela langileei ez zaiela eman txostenaren berri. Eztabaidei buruz, batzorde informatiboetara eramanez gero, horien akta jasotzeko eskatu du, ezin baita osoko bilkuratik eztabaida ezabatu, eta eztabaida hori publikoa izateko aukera ere bai.

**Joseba Otondo, alkatea:** Azaltzen du dagoeneko batzorde informatiboan eman zela informazioa. Dioenez plantilla organikoan kontratatu laboralak ziren, musika eskolako irakasle kontratuen atalean berriz administratiboak ziren. Graduaren ordainketa dela eta udal zerbitzu juridikoari kontsulta egin zitzaion, eta txostenak dio langile laboralak direla eta horren arabera dagokion maila eta osagarriak finkatu behar direla eta egoera normalizatu.

**Idazkaria:** Argitzen du oraindik azterketa egin gabe dagoenez C maila dela, horrela sartu baitzen hondakin teknikaria, eta deialdia bideratua dagoela. Musika eskolari buruz, irakasleen definizioa lan kontratuduna da. Kontratazioa gaizki dago, administradun kontratua egin baita eta printzipioz tenporalak dira. Orain kontraesanak depuratzen saiatzen ari dira.
**Kontu-hartzailea:** Argitzen du 2020ko aurrekontuan aurreikusia dagoela egoera hori.
**Isabel Olave, Navarra Suma:** Langileei erantzun pertsonalik ez dela izanen ondorioztatzen du.
**Joseba Otondoa, alkatea:** Informazio batzordeak informazioa emateko direla dio, eta ondotik, osoko bilkuran informazio horri buruz eztabaidatu. Ez du sobera operatiboa ikusten osoko bilkuran berriro ere informazioa eskatzea. Musika eskolari buruz, langileen ordezkariekin 3 bilkura egin direla dio eta informazioa eman dela. Ulertzen du ordezkariek gai direla hori kudeatzeko eta ikusten du komunikatzeko bidea egokia dela.

*También pregunta por qué ha sido modificado el apartado del personal de la escuela de música del curso 2020-2021. Se ha modificado el tipo de contrato sin que los trabajadores lo hayan firmado.*
*Añade que lo que quiere saber es el importe exacto de la diferencia del nivel del año 2020. Sobre el informe jurídico de la escuela de música, pregunta por qué no se ha adjuntado al presupuesto y añade que cree que no se ha dado cuenta a los trabajadores sobre el informe. Sobre los debates, si se trasladan a las comisiones informativas pide que se levante acta de las mismas, ya que no se puede eliminar el debate del pleno y la opción de que dicho debate sea público.*
***Joseba Otondo, alcalde:** Explica que ya se informó en la comisión informativa. Dice que en la plantilla orgánica eran contratos laborales, en cambio en el apartado de contratos de profesores de escuela de música eran administrativos. Con motivo del abono del grado se consultó al servicio jurídico municipal y el informe dice que se trata de personal laboral y que en función de ello hay que fijar el nivel y complementos correspondientes y normalizar la situación.*
***Secretario:** Aclara que aún no se han realizado las pruebas de euskera y que el nivel es el C, ya que así se incorporó el técnico de residuos y que la convocatoria está encauzada. Sobre la escuela de música, la definición de profesorado es laboral. La contratación está mal, ya que se ha hecho un contrato administrativo y en principio son temporales. Ahora tratan de depurar contradicciones.*
***Interventora:** Aclara que esa situación está prevista en los presupuestos de 2020.*
***Isabel Olave, Navarra Suma:** Deduce que no habrá respuesta personalizada a los trabajadores.*
***Joseba Otondo, alcalde:** Dice que las comisiones informativas son para informar y después debatir sobre esa información en el Pleno. No ve demasiado operativo volver a pedir información al Pleno.*
*Respecto a la Escuela de Música, dice que se han celebrado 3 reuniones con los representantes de los trabajadores y que se ha informado. Entiende que los representantes son capaces de gestionarlo y ve que el canal de comunicación es el adecuado.*

BALLEKO UDALA BAZTAN Noble Valle y Universidad de Baztan

Udal langileen eskaerak ere ez dira banaka erantzun. Langileek aukera izanen dute ekarpenak egiteko. Plantilla organikoa onartzearekin batera definizioa argitzen da eta ondoren kontratuak sinatzeko emanen zaizkie. Orain arte ez da bidali, langileen ordezkariekin bideratu da. Beharrezkoa ikusten bada igorriko diegu.

**Florentino Goñi, Baztango Ezkerra:** Gaineratu du bileran pertsonalki galdetu zuela kexaren bat zegoen, eta inork ez zuela deus erran.

*Las peticiones de los trabajadores municipales tampoco han sido atendidas individualmente. Los trabajadores podrán realizar aportaciones. Con la aprobación de la plantilla orgánica se clarifica la definición y se les da para la posterior firma de los contratos. Hasta ahora no se ha enviado, se ha dirigido a través de los representantes de los trabajadores. Se les enviará si se considera necesario.*

***Florentino Goñi, Baztango Ezkerra:** Añade que en la reunión preguntó personalmente si había alguna queja y nadie dijo nada.*

Alkateak bozkatzeko deia egin du eta 6/1990 Foru Legearen 235. artikuluaren arabera, Udalbatzak **hurrengo akordioa onartu du**, aldeko 10 boto eta kontrako 2 boto izan direla:

1.- 2020 urterako **hasierako onespena ematea**, urtarrilaren batetik aitzineko ondorio ekonomikoekin, Baztango Udaleko Plantilla Organikoari. Horren inguruko zehaztapenak horretarako ireki den espedientean daude, honako saio honi dagokion espedientearen barnean artxibaturik.

2.- Funtzionarioen, lan-kontratudun finkoen, aldi baterako eta behin-behineko administrazio-kontratadunen izenen zerrendak **onestea**, 2020ko urtarrilaren lehenari dagozkienak.

3.- Udalbatzak Plantillari hasierako onespena emanda, hamabost egun baliodunez izanen da **jendaurrean** Idazkaritzan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan argitaratu eta gero, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egoki ikusten dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

4.- Erreklamaziorik izanez gero, Osoko Bilkurak horien eta Plantillaren behin betiko onespenaren gaineko akordio zehatza hartuko luke. Erreklamaziorik ez balego, Plantilla behin betiko onartutzat emanen da, jendaurreko epea igaro ondoren.

5.- Udaltzainen koordinatzaile postua betetzeko Francisco Javier Irureta Rodenas jauna izendatzen da, mantentze lanetako bigarren mailako behargin-ofiziala Jose Mª Celayeta Sarratea jauna izendatzen da eta Musikako Eskolako zuzendari bezala Jeanne Quertier Munarriz.

*El alcalde ha llamado a votar, según lo dispuesto en el artículo 235 de la Ley Foral 6/1990, y el Pleno **ha adoptado el siguiente acuerdo** con 10 votos a favor y 2 votos en contra:*

*1.- **Aprobar inicialmente** para el año 2020 y con efectos económicos de uno de enero del mismo la Plantilla Orgánica del Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad del Baztan, cuyo detalle obra en el expediente incoado al efecto y que queda archivado en el de la presente sesión.*

*2.- **Aprobar** las relaciones nominales de funcionarios, de personal laboral fijo de régimen laboral, de personal temporal en régimen administrativo y eventual, referidas a 1 de enero de 2020.*

*3.- Aprobada inicialmente la Plantilla por el Pleno, se **expondrá** en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.*

*4.- Si se formularan reclamaciones, el Pleno adoptará acuerdo expreso relativo a la resolución de aquéllas y a la aprobación definitiva de la Plantilla. Si no se hubiesen formulado reclamaciones, la Plantilla se entenderá aprobada definitivamente, una vez transcurrido el período de exposición pública.*

*5.- Se designa para ocupar el puesto de coordinador de agentes de policía local al funcionario D. Francisco Javier Irureta Rodenas, para el de encargado de obreros oficial 2ª de mantenimiento al funcionario D. José Mª Celayeta Sarratea y para la dirección de la Escuela de Música Jeanne Quertier Munarriz.*

Jarraian, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 08:25ean. Idazkari gisa, horren guztiaren fede ematen dut.

*Seguidamente, por el Sr. alcalde se levanta la sesión, siendo las 08:25 horas, de todo lo cual, como secretario doy fe.*

ALKATEA
*EL ALCALDE*

*IDAZKARIA*
*EL SECRETARIO*

BAZTAN BALLEKO UDALA
Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad de Baztan
BAZTAN